


**Buruxkak**  
**N°7**



# **Les moulins de Senpere Senpereko errotak**



## Plan de situation des moulins de Saint-Pée-sur-Nivelle





## Les moulins clefs de voûte de l'économie rurale

Nous avons du mal aujourd'hui à imaginer le rôle essentiel que les moulins ont pu jouer dans l'économie rurale. Sans le meunier, point de farine, et sans farine, pas de pain pour nourrir les familles.

Les personnages les plus entreprenants l'ont bien compris bien que l'investissement dans un moulin soit conséquent. Il faut tout d'abord créer le barrage de prise d'eau en travers de la rivière, puis le bief amenant l'eau au moulin. Il se termine par une chute qui crée l'énergie nécessaire à la rotation des meules, et enfin le canal de fuite pour évacuer l'eau vers le fleuve.

On ne sera donc pas surpris de voir sur la liste des propriétaires, les seigneurs de Saint-Pée, d'Espelette, d'Ibarla ainsi que le syndic des « Etxeko Jaun » rassemblant les propriétaires fonciers.

Nous n'avons aucune trace de moulin à vent sur la commune et tous ceux que nous connaissons sont à énergie hydraulique. Malgré le nombre de ruisseaux coulant sur le territoire, ils sont tous liés directement ou indirectement à la Nivelle qui partage les terres du village quasi par moitié.

Ils sont au nombre de huit :

« Errota Zaharra » et le moulin de Mme Choin se trouvent en bout d'Amotz vers Dantxaria au milieu de la forêt, « Ibarlako Errota » en limite de Sare, « Olhako Errota » au quartier Olha, « Akerreta Plazako Errota » près de l'église, « Ibarrungo Errota » à l'INRA, « Errota Berria » au croisement de la vieille route de Saint-Pée, et plus loin vers Ascain, « Helbarrungo Errota ».



## **Eiherak edo errotak senperen**

*Ez da beine aditu aize errota izan denik gure herrian. Beraz ezagutzen ditugunak urekin kurritu eta kurritzen dute, errekek ez baitira eskas. Gainera, gure herriaren zain nagusia, eremuak kasik erdizkatzen dituenak, nahi dut erran Urdazuri, du bere indarra eman errota geiheneri ez badu bildu bertzeeneri. Asita Amotz puntatik oihanaren erdian Errota Zaharrarekin, Sarako mugan Ibarlako Errota, Olhako Errota, Akerreta Plazako Errota, Ibarrungo Errota, Errota Berria eta bertze puntan Azkaineko bidean Helbarrungo Errota ditugu lerrokatuak. Sortu dira erdi aroan orduko dirudunen eskutik, lantegi nagusiek baitziren olharekin eta obra haundiak behar baizuzten eraikiak izaiteko, presatik hasiz musukoak errotaraino joanez, han zurrumba eta tresneri guziak izanez eta azkenik lotura berriz errekarrekin. Beraz ez gira arritzen ikusten dugularik jabeetan Senpereko jauna, Ibarlako jauna, Ezpeletako jauna eta ere bai etxeko jaunak elkartuak. Denak berdinki eginak ziren, bi edo hiru eihera-arrri zituzten, bakotxak bere etzinik zuen zaldi-errotari lotua zurezko ardatz bateri esker, zuzenki itzularazteko. Harri pare hoiketean gainekoa zen beizik itzultzen. Bere erdiko begian bi erkatz ttipi zituen bihiak bi harri tartean igortzeko. Azpikoak morteroarekin zurezko kuadra batean tinkatua izanez lo zagon. Horiek denak zainduak ziren zurezko kutxa batean deitua « eihera angelu ». Laukia, sei edo zortzi aldekoa eta azkenik burubila izaten ahal zen. Hoiken gaintik kuadro bat zuten kobainoa airean atxikitzeko, azpian eskalapoin bat zintzili izanez kalakak dardaran ezartzeko. Errota baserritarrekin ibilkizien. Ekartzen zion lehertu nahi zituen bihi zakuak. Lehen bai lehen pisatzen zituen, irinak pisu berberarekin itzultzeko. Bihia idorra behartzen baina maiz urte zuhurretan ez ziren egoten ahal hainbertze denbor. Abilak edo ahal zutenek su bazterrean ezarriz sukatzien zuzten, baina bertzeek olola ekartzen zuten eta irin sisariak ateratzen ikusiz, errota zainak kolera gorrian sar-arazten zuten, pasta egiten baitzuen. Kobainoa betetzen zuen eta altsakorda ekin ura askatzen zuen zurrutatik zaldiraino .Orduan gure errota pixten zen. Harriak bere lastertasuna zuenean (70-100 itz/min) bihi erortze neurria ematen zen kalaka lokarriekin. Ehotzaren fintasuna bi harrien tartea aldatzearekin antolatzen zen palenkak altsa mahina goratuz edo behehituz. Azkenik zakua irinez betetzen zuen berriz pisu bera izan arte. Irina osoa zen. Orduan zuen errotazainak bere parte hartzen lakarekin...eta hor dira sortu historioak nihork ez baitzuen laka berdina erabiltzen. Dakiguna da, zonbeitzuk bertzeak baino gehiso artzen zutela. Hemen gelditzen zen errotaren egin beharra. Gero bakotxak bere aide zetabean pasatzen zuen bere parte, erortzen zena baliatuz edo salduz eta ondarrarekin abereak azituz (zerri, ahate, oilo eta abar...). Baseritarrak ez zuen gaitzerik, errotazainak artu zion parte baizik.*

## Leur fonctionnement

Tous les moulins étaient bâtis sur le même principe, avec 2 ou 3 paires de meules liées chacune à son rouet par un arbre de bois qui lui transmettait en direct la rotation. Seule la pierre du dessus était tournante (meule volante). En son centre, un trou dans lequel 2 petits balais poussaient le grain tombant de l'auget sous les pierres. Celle du dessous (meule dormante) était fixée dans un cadre au mortier. Le tout était abrité par une caisse appelée « archure » qui pouvait être carrée, hexagonale, octogonale ou circulaire. Au-dessus, était posé un cadre qui maintenait en suspend le « baille blé » ainsi que l'auget que les dents du « babillard » faisaient vibrer pour que le grain tombe.


Le moulin était mis en route lorsque un paysan apportait les sacs de grain qu'il voulait faire écraser. Le meunier commençait par les peser afin de lui restituer le même poids en farine. Le grain devait être sec, mais lorsque la disette sévissait, les paysans les plus démunis ne pouvaient attendre. Certains pensaient à faire sécher les grains d'abord auprès du feu, mais d'autres venaient avec une récolte encore humide et faisaient rougir de colère le meunier à la vue des serpentins de pâte sortant de la meule en guise de farine!



1	Potence	Astoa
2	Trémie	Kobaino
3	Baille blé	Kalaka losarri
4	Auget	Eskalapoin
5	Babillard	kalaka
6	Archure	Eihera angelu
7	Poignée de vanne	Altxa-korda
8	Meule volante	Errota-harri
9	Anille	Deila
10	Boitard	Harri-zilo
11	Meule dormante	Harri-finkatu
12	Fusée	Burdinak
13	Anche	Dutxulu
14	Maie	Aska
15	Arbre	Ardatza
16	Rouet	Ahuntz edo zaldi
17	Buse	Zurruta
18	Vanne	Zurrutathea
19	Pivot	Opho edo Natza
20	Carpaudine	Apottoro
21	Banque	Altxa-mahaina
22	Trempure	Palnga
23	Bol	Eihera-bular
24	Bief ou canal	Musukoa
25	Barrage ou prise d'eau	Presa

Planche : EIHARA C., eihera C., ihara C., \*e'ota L.

(Dessin.)



I. Eihera -gibel C., e'ota -gibel L. — 1. eihera -gibel C., e'ota -gibel L., — 2. aska C., e'ota L., naza C., — 3. baralda S., baranda S., baranga S.

II. Eihera -bulhar S. N., e'ota -aitzin L., e'ota -aitzinde L.

III. 1. Kobain S. N., xuru L. N., artho -thütülü S., askazilo C., balutre L. N., bürünegi -kobain S., zetabe C., — 2. eihera -alde L., — 3. ardatz C., — 4. kalaka -bokañi L., kalaka -korda C., — 5. klaka C., kalaka C., — 6. xilintxa C., — 7. arkoło S., eskalanpü S., eskalapoin L. N., kokots C., — 8. eihera -hari C., — 9. dotsulu C., tütxülü S., — 10. eihera -angelu L.

IV. 1. askazaldi S., artho -pasatzeko L., — 2. labe C. (crible), zetabe C. (tamis).

IV. (bis) 1. zaku C., zakhu C., zoño C., — 2. dutxulu C., tütxülü S.

V. altxa -petxo S., — 1. ardatz C., — 2. aphoñoro S.

VI. Ahüntz (turbine à aubes), — zaldi L. N. (t. à anges). — 1. botina -zilo S., zuruta L. N., — 2. altxa -korda C., altxa -hañi C.

Après pesage, le grain était donc versé dans l'auget. La vanne était ensuite ouverte pour lâcher l'eau de la buse sur le rouet et mettre en mouvement le système. La « volante » ayant atteint sa vitesse (70 à 100 tr/mn), la quantité de grain tombant dans la meule était réglée par la hauteur du bout du « baille blé ». La finesse de la mouture était obtenue par le réglage de l'écartement des 2 meules par la « trempure ». Le sac rempli était à nouveau pesé jusqu'à l'obtention du poids de départ. Puis le meunier prenait sa part avec un contenant de nature variable ; le « laka ». Mais celui-ci n'étant pas étalonné, il y avait souvent des discussions animées! Chacun devait ensuite tamiser ce qui lui revenait, la farine pour la consommation familiale, et le son pour les bêtes, car rien ne se perdait.

## Une histoire mouvementée

Sur les huit moulins, quatre sont dans Saint-Pée depuis des siècles, les trois moulins du seigneur: le moulin du bourg, celui d'Olha et celui d'Helbarron, puis celui du syndic des propriétaires fonciers à Ibarron. Les autres ont été rattachés à la commune plus tard, peut-être dans le cadre d'un redécoupage communal, ou sont plus récents.

Nous nous sommes attachés à retracer l'histoire des quatre premiers.

**1177-**Première trace écrite du château des Senpere. Aliénor apporte l'Aquitaine à celui qui deviendra Henri II d'Angleterre en se remariant avec lui en 1154. Celui-ci voudra lui rattacher le Labourd. La vicomté du Labourd était alors vassale du royaume de Navarre et s'est soulevée pour être finalement écrasée. Henri II envoie son fils Richard à la tête de l'armada et pour sanction, sépare Bayonne alors capitale de la province pour l'ériger en « city ». Il fait raser toutes les places fortes qui étaient au nombre de cinq : Bayonne, Ustaritz, Garro, Saint-Pée et Sault d'Hasparren. La capitale fut désormais Ustaritz.

**1449-**À la fin de la guerre de cent ans, le roi de France Charles VII voulut récupérer toutes les possessions anglaises. Il envoya son vassal le vicomte du Béarn, Gaston IV, qui après un bref combat « brûla et fourragea le château et ses trois moulins ». C'est à cette occasion que les moulins de Saint-Pée sont mentionnés pour la première fois, mais leur construction est certainement bien antérieure et liée à la période de l'édification du château.

**1652-** Des historiens voient l'origine de la démocratie rurale représentée par l'assemblée des « etxeko jaun », les propriétaires fonciers, comme un héritage de la domination anglaise. Les « etxeko jaun » de Saint Pée décident de bâtir leur propre moulin à Ibarron.



## Jaurlegiko errota

**1177-** Lehenbiziko aldia Senpereko gotor lekua aipatu izan dela. Alienor, Akitania ekarri zuen Angleterrako Henri II-ri elgarrekin ezkonduz 1154ean eta harek Lapurdi hortari lotu nahi zion. Bikontek eta Lapurtarrak Nafarroko erregearekin izanez ez ziren ados eta borrokan sartuko dira azkenik galtzeko. Henri bere seme gazteak igorri zaikun, Richard, eta harek zuen Baiona, horduko hirinagusia, aparte ezarri eta, ez berriz asteko, gotor leku guziak urrarazi zituen (bortz ziren: Baiona, Uztaritze, Garro, Senpere eta Saldu Hazpamen.). Bikontek Uztaritzen da geldituko.

**1449-** "Ehun urteko gerla"bururatzean, Frantziko erregeak, Charles VII, Angles lur horiek bildu nahi izanez, igorri zaikun Bearnese bikontea Gaston IV. Zonbeit kataskaren ondotik, bildu ziren Senpereko jaurlegi antzinean eta borroka azkar baten bidez, aldaskez bete eta su eman zuzten gazteluari eta bere erroteri. Orduan dira agertzen paperetan lehen aldikotz gure Errotak. Hiru baziren.

**1652-** Herriak bere errota eraiki zuen Ibarrunen.

**1658-** Jaurlegiko jaunak herrikoak auzian ezarri zituen errota hori traban baizuelakotz. Bainan epailea ez zen bere alde joan, eta elgar lotu zituen lau errota horiek emanez erdizka partekatu beharko zutela mozkinak eta gastuak. Bi urtez erabiltzeko baimenak ezarriak ziren etxetiarreri.

**1791-** Iraultza garaian ez da ezer aldatu. Agorrilaren 22an herrikoek eta hautetxiek biltzen ziren Zaldubian erroten erabiltzeaz eztabadatzeko. Araudi bat ateratu zuten.

**1813-** Arrangoitzeko Larre jaunak zuen bildu Jaurlegiko jabetasun guziak eta beraz lau erroten erdiak.

**1814-** Napoleonen soldaduen sel ilabeteko jartzeak eta ondotik Wellington eta bere "espaniol" soldaduek utzi zuten gure herria arrunt suntsitua. Komunak ez zuen hautarik; sos pixkabat sartzeko saldu zituen bere erroten erdiko parte guziak Hiruenak (Olha, Ibarrun eta Helbarrun) Jean Felix Barreau, departamenduko kadastran lan egiten zuena, Bernard Lacassin eta Pierre Roux Paueko saltzaileak erosi zuten. Laugarrenak Larre Jaunak zuen hartu.

**1845-** Barreau eta Lacassin elgar zuten hautsi erroten uztarri hori auzi baten bidez.

**1658**-Le seigneur va ester en justice les maîtres du moulin neuf. Il perdra, et les juges décideront que les gains et les frais des 4 moulins (les 3 du château et le moulin neuf) seront partagés par moitié entre la commune et le châtelain, ainsi que les propriétés qui seront en indivis.

**1791**-L'assemblée de la commune se réunit à Zaldubia pour délibérer de la gestion des moulins.

**1813**-M.Larre, d'Arcangues, hérite de toutes les propriétés du château ainsi que de la moitié des revenus des quatre moulins.

**1814**-Six mois de présence des soldats napoléoniens puis, le passage de Wellington et de ses « Espagnols », ont ruiné le Labourd. La commune n'a pas le choix et doit se séparer des parts des quatre moulins. Olha, Ibarron et Helbarron sont rachetés par Jean Felix Barreau, vérificateur du cadastre du département, Bernard Lacassin et Pierre Roux négociants à Pau. Plazako errota au bourg, devient propriété du Sieur Larre.

**1845**-Les consorts Barrau et Cassin mettent fin à l'indivision en vertu d'un jugement d'adjudication rendu à Bayonne.

**1849**-Dominique Larralde et Joseph Etchaide acquièrent les 3 moulins d'Olha, Ibarron et Helbarron en 1872. La famille Larralde récupérera ensuite la totalité des parts.

**1908**-Dominique Garat, notaire, intervient dans la vente des trois bâtiments et leurs dépendances à Jenero Larreche de Pampelune, Antonio Irazoqui et Jose Nesprias de Vera.

**1921**-Maria Irazoqui, épouse Etchegaray, récupère les parts du père et Rosario Irazoqui, épouse d'Elissalde, rachète les part de Nesprias.

**1922**-Jean Daguerre (Manex), venu d'Errota Handia d'Arcangues au moulin d'Olha en 1895, rachète le moulin du bourg Plazako Errota à son ouvrier Martin Maisterrena. Celui-ci l'avait lui-même acheté aux frères Dop qui le tenaient de leur mère, Dame Larre.

**1929**-Les Daguerre frère et sœur, Mixel et Véronique se marient avec les frère et sœur Ithurria Marie et Jean-Baptiste. Mixel s'installe à Ibarron et Jean-Baptiste à Olha.

**1932**-Le dernier fils de Manex, Pierre Daguerre, s'installe au moulin du bourg, Plazako Errota.

**1949**-Les trois copropriétaires vendent : le moulin d'Ibarron à M. Galzagorry et le moulin d'Olha à M et Mme Hirigoyen qui le légueront à Mme Lamensans.

La famille Ithurria achète un moulin à Ascain dans le quartier d'Olha et la famille de Mixel Daguerre l'hôtel du fronton d'Ibarron.

**1966**-L'I.N.R.A. se rend propriétaire du moulin d'Ibarron.

**1849-** Dominique Larralde eta Joseph Etchaide hiru errotak erosten zuten martxoko 16ean.1872ko irailaren 21ean Larralde familiak Etchaiden parteak bildu zuen.

**1908-** Dominique Larralde notarioak saltzen ditu hiru errotak eta beren ingurukoak Irufiako Larreche Jan ero ,Atoni Irazo qui eta Jose Nespriaseri.

**1921-** Rosario Irazoqui, Jose Etchegarayren emazteak, bere aiten parteak bildu zituen eta Nespriaseriak erosi.

**1922-** Jean Daguerre ( Manex) ,Arrangoitzeko Errota haunditik etorri zen 1895ean Olhako errotarat bordari; eta urte hartan erosi zuen Plazako errota Martin Maisterrena mutil zuenari, harek Dop(ama Larre zuten) anaieri erosiz urte berean ezkondu izanez (ez zen bere emazte berriaren gustu).

**1929-** Daguerre anai arrebak, Mixel eta Beronika ezkondu ziren Ithurria anai-arrebekin, Marie eta Jean-Baptiste.Mixel Ibarrungo errotan egon zen eta Jean-Baptiste Olhan.

**1932-** Pierre Daguerre, Manexen azken semeak, eta bere famili berriak Plazako errotarat jin ziren.

**1949-** Hiru elkar-jabeak saltzen dute Ibarrungo Errota Galzagorri jaunari eta Olhako Hirigoyen jaun-andereari (gaur ,horien alabak, Lamensans andereak, du segida artu.).

Ithurria familia joan ziren Senpereko Olhatik Azkaingo Olhako errotarat eta Mixel Daguerren familak Ibarrungo « Fronton » ostatu hartu zuten.

**1966** I.N.R.A. Ibarrungo errotaz jabetzen zen.

**Errota on da dabilana, ez geldirik dagona ...**



Photo du pivot et de la crapaudine

## Contrats d'afferme des 4 moulins

Les contrats d'afferme précisent:

« Les fermiers sont tenus d'entretenir les moulins en bon père de famille, les laissant à la fin du présent bail en aussi bon état qu'ils sont maintenant avec tous les outils et instruments qu'ils y recevront et ou par le débordement des eaux ou autre accident imprévu la grande pécelle ou partie d'icelle venait à être emportée, lesdits bailleurs la feront réparer et en supporteront également le chômage au prorata du prix des dites fermes, sauf que les premiers onze jours seront pour le compte desdits fermiers... »

## Lau erroten kontratuak

*Errota zainak etxetiarrak ziren eta beren kontratuak urtero edo bi urtetik erreberrituak ziren, maiz irailaren erdian. Hortakotz tokitaz usu aidatzen ziren. Kontratuetan argiki emana zen nola behar zuten zaindu lekuak; eta tresnak ere bai. Aldaketa guziz denak begiratuak ziren eta ezarriak zerrenda baten gainean. Urgandiko istripuz presa hondatzen baldinbazen nagusiek zuten beren gain hartzen antolaketaren gastuak eta errotazainen eskasak; salbu lehenbiziko 11 egunak...*



Volant

## DATES DES ADJUDICATIONS ET ADJUDICATAIRES :

- 4 septembre 1741 pour 709 Livres 19 Sols et 4 deniers : à Bety Hiriart.
- 4 juin 1743 : Bety Hiriart.
- 4 Septembre 1743 : 550 livres à Pierre Dihabe dit Salomon.
- 5 Septembre 1755 : 650 livres à Pierre Dihabe.
- 4 septembre 1757 : 711 livres. à Pierre Dihabe.
- 9 septembre 1759 : 636 livres. à Pierre Dihabe.
- 14 septembre 1769 : 533 livres. Martin Hiribarren Sieur d'Helbarron-chabatenea.
- 2 octobre 1771 : 799 livres à Bernard Hiriart Sieur Ancien de Helsangue pour les moulins de la Place et Olha.
- 12 septembre 1773 : 1862 livres et 5 sols à Bernard Hiriart Sieur Ancien de Helsangue pour les moulins de la Place et Olha.
- 3 septembre 1775 : 2027 Livres à Bernard Hiriart Sieur Ancien de Helsangue pour les moulins de la Place et Olha.
- 14 septembre 1777 : 1850 Livres à Bernard Hiriart Sieur Ancien de Helsangue pour la moitié des 4 moulins du Marquis d'Amou.
- 8 septembre 1779 : 777 Livres à Joannes Daguerra, Sieur de Larrondoa.
- 14 septembre 1781 : 2077 Livres à Bernard Hiriart Sieur Ancien de Helsangue pour les moulins de la Place et Olha.  
Les meuniers (fermage de 2 ans).
- 14 Septembre 1741 : Pierre Hiribarren pour 1041 livres 6 sols 8 deniers.
- 4 septembre 1745 : Pierre Hiribarren pour 900 livres.
- 5 septembre 1755 : Pierre Hiribarren et Joannes Legas pour 1380 Livres.
- 9 septembre 1757 : Joannes Legas pour 1380 Livres.
- 9 septembre 1759 : Antonio Barberia marchand pour 1200 Livres.
- 1769 : Pierre d'Orratiague pour 1000 Livres 5 sols.
- 2 octobre 1771 : Saubat Hiriart pour 1627 Livres 10 sols.
- 2 septembre 1773 : Bernard Hiriart avec le moulin de la place pour 1862 Livres.
- 3 septembre 1775 : Bernard Hiriart avec le moulin de la place pour 2027 Livres.
- 8 septembre 1775 : il prendra un sous fermier pour le moulin d'Olha : Martin d'Olhagaray.
- 1 janvier 1776 : Martin d'Olhagaray décède. Il est remplacé par Pedro Teiletchea.
- 8 septembre 1779 : Bernard Hiriart pour 1830 Livres (1 an et 8 mois).
- 14 septembre 1781 : Bernard Hiriart avec le moulin de la Place pour 2077 Livres.

## 22 Août 1791 : Délibération municipale

*L'Assemblée des citoyens de la commune se réunit à Zaldubia pour délibérer sur la gestion des Moulins.*

*Les citoyens de la commune, sous la présidence des membres de la municipalité, pour délibérer sur l'administration des Moulins, après que le Sieur Duronea Maire a ordonné la convocation et qu'il a eu expliqué les avantages que pourraient réunir à la commune en continuant par tous les citoyens à faire moudre leurs grains dans les Moulins de la paroisse et faire remarquer qu'on n'était plus tenu à suivre l'ancien usage en vertu de la faculté qu'avait chaque individu d'aller là où il voulait d'après les décrets de l'Assemblée Nationale.*

*L'Assemblée des citoyens considérant qu'il est de leur intérêt de recevoir de fortes fermes des Meuniers qui seraient dans le cas de prendre le moulin de la commune, dont les charges locales et les objets d'entretien se trouvant multiplié à un tel point qui le seraient souvent dans le cas d'augmenter leurs impositions....*

*Considérant encore que les Moulins eux mêmes sont dans un extrême besoin de réparation ayant été négligé depuis longtemps et leurs revenus employés au payements des impositions de la commune, ont d'une voix unanime, délibéré renoncer à aller moudre leurs grains dans tout autre Moulin que ceux de la commune.*

*Et en conséquence de la renonciation que font à leur droit, il a été délibéré :*

*Que tout citoyen qui sera trouvé allant ou venant d'un moulin étranger avec du grain ou de la farine, par un Meunier de la commune attesté d'un témoin, sera condamné*

*à une amende de 10 Livres, 5 Livres au profit de la caisse de la commune, 5 Livres adjugé au meunier saisissant. Confiscation du grain ou de la farine contenu dans le sac.*

*Qu'il sera remis dans chaque Moulin et au frais de la caisse de la commune une romaine avec laquelle chaque individu pourra peser avant de mettre à la Moulade son grain et repeser ensuite la farine, déduction toutefois faite du poids de grains qui reviennent aux Meuniers.*

*Que si le Meunier préférerait moudre le grain d'un étranger à celui de la municipalité serait condamné à une amende de 10 Livres par la municipalité.*

*Que les Meuniers qui prendront les Moulins ne pourront vendre leurs grains à raison de 5 sous de plus que feront les grains au marché de Bayonne, sinon ils seront condamnés à une amende de 10 Livres par la municipalité.*

*Enfin la présente délibération sera envoyée à MM du Directoire du District pour avoir leur avis et ensuite MM les administrateurs du Directoire du département pour être autorisé et ensuite ramené à exécution dans son contenu à la vigilance du Sieur Procureur de la Commune. Fait et arrêté en présence du Sieur Duronea Maire, Jaureguiberry, Soudre, Moleres, Daguerra, Goyentche Officiers Municipaux, Sieur Darretche Procureur de la commune. Des sieurs Bastre, Martienca, Bessonart, Bastres, Anzola, Duhart, Darragaryt, Gastambide, Dufourg, Cartain, Notables, Marithoury Curé, Duronea Vicaire, Doyharçabal second Vicaire. Lamothe aubergiste et environ 135 Maîtres de maison dont les noms figurent sur la délibération.*

## Moulin d'Olha 4



Il se trouve au pied de la colline d'Olha, en bout de l'ancien pont qui menait à la chapelle, pas loin de l'emplacement où fut jadis la forge qui donna le nom au quartier. Son barrage de prise d'eau sur la Nivelles est au niveau de la maison Donamar-

tia et mesure 2.5m de haut. Le bief longe la rivière sur 600m et passe par un long tunnel creusé à la main. La chute de 3m fournit assez d'énergie pour mouvoir 3 paires de meules et même une scie à une époque. Deux arcs de pierres permettent à l'eau de s'évacuer en se rejoignant sous un petit pont roman avant de finir à nouveau dans la Nivelles. Le moulin apparaît sur les cartes de la famille Cassini réalisées dans la deuxième moitié du XVIII<sup>ème</sup> siècle. Être répertorié sur les cartes Cassini est essentiel car cela permet encore aujourd'hui d'avoir un droit d'eau appelé le fondé en titre. Il a cessé toute activité vers 1975. Fin 70 ou début des années 80, le bâti a été relevé pour permettre de créer un appartement à l'abri des crues. Tout a été remis en état en 2007 et est aujourd'hui prêt à fonctionner. On peut apercevoir sur une pierre plusieurs niveaux de crues gravés et notamment celui de l'inondation en 1845 lorsque M. Larralde était maire.



Barrage et prise d'eau du moulin

## Olhako errota 4

Urdazuriko egian, Olha mendixkaren pean, lehen-go zubiaren ondoan, garai batean izan zen burdin-olha sokoan hor da pausatua errota. Bere presa Urdazuriren gainean eraikia da, Donamartiaren parean (2.5metra gora). Bere musukoa izaiteko (600 metra) erreka bikhuntzen du arrokan eskuz eginako leze luze baten az-



Le moulin de Manex

pietatik pasatuz jiten da errotaraino. Han hiru errotharriari indarra emaiten du (zerra bateri ere garai batean) 3 metrako zurrunba jautsiz. Bi arku azpitik ateratzen zaio ura elgar biltzeko harrizko zubi polit baten azpian, Urdazuri berriz atzemaiteko Olha-Kontienea etxearen parean pasatuz. Cassiniren kartetan agertzen da. Lehen, bizitegia beherian zuen eta geroztik altxatua izan da lekua haunditzeko eta uroldetik babestua. Behiolan, bere antzinetik pasatzen zen, Olha auzoaren barurat joateko edo bere saihetsetik, malda upatuz, Ezpeletako bidea arrapatzeko. Gelditu da 1975 urte inguruan, baina gaur, bere tresnak berriz prest dira irina egiteko, berriki beren ardatzak erreberrituak izan gatik. Erdian, harri baten gainean, zizelkatuak dira urgaindi batzuen goratasunak eta naski 1845 ekoa Larralde baldarapeza zerarik.





# Manex DAGUERREn KANTUIA

Complainte du meunier d'Olha.

*Louise Daguerre, Manexen alaba ttikia, bildurik Fermin Lopez agotik , harek 1945 inguruan entzunik.*

*Manex Daguerre :1870an Arrangoitzeko ERROTA HANDIAN sortua eta 1895 senpererat jina OLHAKO-ERROTARat 1949 arte.*

Chanson transmise par Louise Daguerre petite fille de Manex Daguerre après avoir été recueillie par Firmin Lopez vers 1945.

Manex Daguerre : né à Arcangues en 1870 il est venu s'installer à OLHAKO-ERROTA en 1895 et ce jusqu'en 1949.

*Errota zainen kontuia*

*Ez duk arras tontuia*

*Borta aintzinerat jin orduko*

*Zaku puntatik lotuia*

*Ederki lakaturik*

*Joaten ditek zakuia...*

L'histoire du meunier

N'est pas complètement idiot

Arrivé devant la porte

Attaché par la pointe Vraiment bien taxé

Le sac s'en va...

## Obrak olhako errotan

Travaux au moulin d'Olha

**6 avril 1744**-Travaux a faire a la pécelle (presa).

140 brasses de mur .Il faut 40 tombereaux de chaux de la carrière de Guibeleran et 20 de sable.

**21 juin 1744**-Adjudication des travaux à 49 sols la brasse.

**6 juin 1751**-Il faut faire une pécelle de fond en comble .Un plan a été établi par le sieur Gamoy , architecte à Bayonne. Les travaux seront faits par Joannes Hirigoyen, Maitre maçon, Sieur jeune de Anquetorenea pour 4390 Livres.

**16 septembre 1751**-Pierre Chardiat, maçon de Biarritz, certifie que les travaux ont été fait...détail des travaux.

**8 septembre 1759**-Réparation à faire au canal du moulin selon devis.

**17 juillet 1777**-Réparation à faire à une brèche qui s'est faite au canal du moulin .Les travaux doivent être terminés dans les 10 jours sans que le moulin fut obligé de chômer.

**21 septembre 1777**-C'est Joannes Daniols qui fera les travaux.

**2 février 1782**-Il y a une brèche dans le canal du moulin. Bernard d'Olhagaray et pierre Detchegaray, charpentier feraient les réparations pour 76 Livres , en 15 jours.

## Moulin du bourg 5

Il est situé au centre du village, au quartier dit d'Akerreta, tout à côté de l'église Saint Pierre. Il apparaît sur les cartes des « Cassini ». Sa prise d'eau, 750 mètres en amont, se trouve sur la rivière de l'Amazpetu au pied de la maison « Barraka ». Elle n'a qu'un mètre de haut mais 25m de long. Le bief délimite les terres du château côté Est et côté Nord. En milieu de parcours, il intègre complètement le ruisseau d' « Insarga ». Il y avait 2 déversoirs sur son parcours avant que la commune ne lui en rajoute un troisième le long des terrains de sport en 1978. L'avaloir a une chute de 3.55 mètre qui se termine par 2 bouches commandant chacune sa paire de meules. La première, monolithe en grès du pays pour le maïs et la seconde en composite de silex de La Ferté-Sous-Jouarre (à l'Est de Paris) et cerclé de fer pour le blé. Puis, le canal passe sous l'église et termine sa course en rejoignant la Nivelle 200 mètres plus loin derrière Oxtikenea. Aujourd'hui, la famille Daguerre qui y habite, ouvre volontiers sa porte à qui désire le visiter, avec en saison, une démonstration de mouture.



Canal et déversoir

## Akerreta plazako errota **5**

Akerreta auzoan, elizaren bazterrean dago gure errota. Bere presa (metra bat gora) Amezpetuko erreka-aren ukondo batean ezarria da, Barraka etxearen oinean, errotatik 750 Metra buruan. Bere musukoa, Jaurlegiko lurrak mugatuz eki aide, biltzen du Insargako erreka osoa bere bide erdian. Cassini kartetan agertzen da. Bi soberakinak bazituen astapenean eta berriki (1978) herriak hirugarren bat egin dio kirol zelaia antolatzean. Bere zurrunbak 3.55 metrak egiten du. Bi dusulu manatzen dute bakotzak bere errotak, batto artoarentzat eta bertzeak gariarentzat. Lehenak, bi hare harri osozko batian zizelkatuak dira, hemendik hurbiletako arrobibatetik ekarriak. Bigarrenak, ogi bihiarentzat, eginak dira harri zorrotzagoarekin (su-harria) muturka eta elkar lotuak igeltsuarekin eta tinko atxikiak burdin gerrikoarekin, orgaren errotak bezala. Azken horiek La Ferte-Sous-Jouarre herritik etorriak dira, han baitzuten errotako harri hoberenak. Errotatik bertze 200 metra egiten du hertzeak Urdazuri biltzeko, Oxtikenea parean, Zarika sorroan, eliza azpitik pasatuz. Etxe koxkorbat da pisu batekin. Lehen, sukaldea erroten gela berean zen taulez muga tua erra utsaren gatik eta ganbarak aparte leku guziak selaru ziren bihi eta irin biltzeko. Gaur Daguerre anderearen bizitegia da, irina beti egiten da sasoinaz eta atea idekitzen ditu bisitatu nahi duenari.



## Moulin d'Helbarron 8

Il est construit sur la vieille route d'Ascain, juste après avoir passé le pont de métal style « Eiffel », en prenant le premier chemin sur la droite, tout au fond. Son barrage de prise d'eau est sur la Nivelle en face de la maison Usondoa, et la chute fait 2.5m de haut. Le bief est commandé par une porte et régulé 20m plus loin par son seul déversoir. C'est 800m qu'il faudra parcourir pour trouver la chute de 3.5m de haut et encore 120m pour retrouver le fleuve. Deux paires de meules étaient en fonction, comme le montre l'acte notarié de réparation effectuée par le maçon Pierre Guilsou d'Hinarga en 1741. C'est la famille de meuniers Arburua de Sare qui l'acquiert en dernier. En pleine guerre d'Algérie, en 1958, ils eurent l'idée de créer une entreprise de recyclage de cuivre de cartouches militaires qui leur étaient livrées par camion. Ils investirent dans un générateur électrique pour récupérer le cuivre en plaque par électrolyse. Malheureusement cette activité ne dura qu'une paire d'années. Voici une trentaine d'années, Etienne Arburua remit en état les lieux ainsi que le générateur qui continue aujourd'hui à utiliser les 1500l/s de débit.



## Helbarrungo errota **8**

Azkaineko bide zaharrear, burdin zubia pasatuz, eskuin aldean da plantatua. Bere presa, Usondoa etxearen parean da, Urdazuriren gainean eta 2.5 metra gora egiten du. Musukoaren sartzean ate bat dago eta hortik 20 metra buruan du bere isurtze bakarra. Urak behar du 800 metra egin 3.50 metrako elortzea arrapatzeko eta berriz 120 metra ibaia atzemaiteko. Bi errota-harri itzularazten zituen 1741 eko notario papera batean agertzen den bezala. Orduan, Inhargako Pierre Guilsou harginak, erreberritu zuen. Sarako Arburua familiak du azkenik erabili. 1958 an, Algeriko gerla betean, enpresa bat sortu zuten soldadu kartuxaren kobrea berziklatzeko eta, errota-harrien orde, argi indarra edo elektrika egiteko tresna haundi bat zuten ezarri gelaren erdian. Hortari esker « electrolyse » sistemarekin kobre azalak biltzen zuten. Kartux ipurdiak kamionez etortzen ziren. Urte pare batez iragan da. Arbura semeak du erreberritu lekua eta tresna duela 30 bat urte, eta beraz bere 1500 litro/s ur joaitea beti erabilia da.



Prise d'eau et canal de dérivation

## Moulin d'Ibarron 6

En partant du fronton, il faut emprunter la rue Igela vers l'ancien hôtel Fagoaga ; le moulin se trouve à main droite à mi-parcours. Sur le linteau de la porte est gravé : « HAU DA ERROTA SENPEREKO HERRIAK EGINACIA 1652 », soit : « ceci est le moulin que fit ériger la commune de Senpere 1652 ». Il ne paraît pourtant pas sur Cassini. Son air modeste vu de côté cache en réalité le plus grand moulin de Senpere. L'augmentation de la démographie a du être suffisamment importante pour justifier une pareille construction. Tout le soubassement est en pierres de taille. Il permettait de faire tourner 4 paires de meules avec une chute de 2,70m en utilisant 10 chevaux de puissance. On trouve encore enfichés dans la poutre maîtresse, bien que remplacés par des potences plus sûres, des cabestans (genre de treuil manuel) permettant de lever les pierres de meule. Sa prise d'eau se trouve au niveau du pont de Zaldubi en travers de la Nivelles. Il a subi les colères du fleuve à plusieurs reprises et a été rebâti plusieurs fois comme l'indique l'inscription sur la pierre de 1705 près de la prise d'eau: « HAU DA PRESA EGINA MARTIN DE HIRIART HELBARUN CAMIET BALDERNA APEZ CEN URTHEAN 1705 ». Soit : « ceci est le barrage fait lorsque Martin de Hiriart de la maison Camiet d'Helbarrun fut maire ». Cependant, celui qui se trouve sous nos yeux date en réalité de 1881 et a été bâti 10m en arrière de l'ancien et relevé de 0,32 m. Le sieur Etchenique, propriétaire d'alors, fit effectuer la même année une brèche d'une largeur de 8m sur le côté gauche, 40m en amont pour évacuer le surplus. Le bief fait 480m de long jusqu'au moulin puis 280 autres mètres pour rejoindre la rivière. Il permettait à trois paires de meules de fonctionner encore lorsque la famille Galzagorri le vendit à l'I.N.R.A. en 1966. Le bief sert aujourd'hui de pisciculture et l'étage du moulin est utilisé comme habitation. La salle des meules a été conservée dans son « jus ». Une pierre tombale discoïdale fut trouvée dans le hangar.



Linteau de la porte d'entrée du moulin

## Ibarrungo errota **6**

Inharriatik hartuz Igel karrika, errotaren saihetsean pasatzen gira. Irakurtzen ahal da bere atearen gainean zizelkatua izan zaion harri batean: "HAU DA ERROTA SENPERECO HERRIAC ERAGUINARACIA 1652". Bazterretik iduri xumea emaiten du, baina egiazki Senpereko errota handiena da. Garai hartan herriak itsuxki emendatu izantzen holako tresna baten beharra izaiteko. Azpi guzia harri landu koskorrekin egina da. Lau errota-harri bazituen. Ez da harritzeko orduko jaurlegiko jaunak etxeko jaunak auzitan eman zituela. Erdiko lazan ikusten ahal dira lehengo gindaxak (harriak altsatzeko gailuak) hor utziak geroztik urkabe astoak emana izanez ere. Bitxiki Cassinik ez du agertarazi. Bere presa, Zaldubian eraikia izan da Urdazuriren gainean. Urgaindiekin arrazoak izan ditu bat baino gehiagotan eta berriz 1705 ean altxatua izan da, bere hegiko harri batean irakurtzen ahalden bezala: "HAU DA PRESA EGINA MARTIN DE HIRIART HELBARUN CAMIET BALDERNA APEZ CEN URTEAN 1705." Bainan azkenik, begi azpian duguna, 1881 ean eraikia da zaharratik amar metra gibelago eta 0,32 metra gorago. Hiru metraz hurbil gora egiten du. Denbora berean, 40 metra aintzinago, zortzi metra zabaletako idekidur bat egin da errekararen saihetsean, soberako ura gaindi egin dezan. Ur hartzetik errotaraino musukoa 480 metra luze du eta 280 metra ditu berriz errekaraino. Erortzeak 2,70 metrak gorakitu eta erabiltzen ahal diren 10 zaldi emaiten ditu. Hiru errota-harri itzularazten zituen Galzagorrik I.N.R.A.ri saldu zuelarik 1966an. Gaur musukoa arrainak azitzeko erabilia da eta errota bizileku bilakatua gaineko partean, bainan behean errota-harrien ondarrak atxikiak ditu. Bere ehian hil harri borobil bat atxeman izan da.



Plaque de pierre sur la prise d'eau



Ruines de l'ancien barrage





### Moulin d'Ibarla 3

Il se trouve au quartier d'Amotz, au lieu dit Herburu, en direction de Sare. C'est l'eau de la rivière Lizuniga qui va permettre de faire tourner 3 paires de meules. Il apparaît sur Cassini ainsi que sur le testament de 1537 de Joanes IBARROLA, conseiller au parlement de Bordeaux. Le prélat fortuné laisse de nombreux biens dont la maison qu'il a fait construire dans son village natal : « dans la dite paroisse de Sare et près de la maison ancienne dibarrola une belle grande maison, aussi un beau moulin, bordieu, vergier, terres et appartenances près de l'église dudit Saint-Martin de Sare et un grand vergier appelé de Rementa près de la dite maison ancienne dibarrola...». Aujourd'hui Ibarla Zaharra et le moulin sont sur les terres de Senpere alors que le manoir et le barrage se trouvent sur Sare. 230m séparent la prise d'eau du moulin. Sur les derniers 25m, le bief s'élargit et est recouvert de belles pierres avec notamment une ancienne meule dans le fond. Un bâtiment d'habitation a été rajouté sur son côté Nord-Ouest. Les trois paires de meules sont toujours là en état de fonctionner et permettent au propriétaire de faire son propre pain pour son plaisir.



Bassin de rétention et avaloire

## **Ibarlako errota** **3**

*Amotzen dugu, Herburu auzoan, Saratik urbil, Lizuniagari ura hartuz hiru errotarriak itzularazteko. Cassini Kartetan agertzen da. Joanes IBARROLA, Bordeleko Parlamentuko kontseilariak utzitako testamenduan, 1537an, ageri dira harek eraiki dituen Jaurlegia Ibarla etxe zaharren ondoan, errota eder bat eta sagarrondo haundi bat. Gaur, Ibarla zaharra eta errota Senpereko lurretan dira, baina Jauregia eta errotaren presa Saran kokatuak dira, lehengo baionatik Espainiarat joateko bide nagusiaren bazterrean. Ur hartzeratik errotaraino 230 metra luzeko musukoa zuzenki joaten da. Azken 25 metretan zabaltzen da eta zurumbaraino dena harriz egina da. Utsa delarik agertzen da zolan errota-harri bat pausatua. Gero 130 metra gelditzen zaio Urdazurin botatzeko. Errota haunditua izan da noizbeit bizi lekuari leku geixo emaitako. Tresna guziak beti hor dira eta gaurko jabeak ogi irina egiten homen du tarteka bere plazerarentzat.*



Moulin d'Ibarla à Saint-Pée



Manoir d'Ibarla à Sare

## Moulin neuf (errota berria) 7

En bout d'Ibarron, à l'intersection de la vieille route de Saint Jean de Luz et celle d'Ascain se trouve la maison nommée « Errota Berria ». Il y a longtemps que l'eau ne passe plus dessous. Il apparaît sur Cassini, pas sur le cadastre de 1811, mais sur une carte de l'arrondissement de Bayonne de A.Perret en 1846. Il a été agrandi et/ou restauré en 1848. Il fonctionnait avec un étang délimité à l'Est par un monticule naturel, et à l'Ouest par un mur de pierre et de terre venant s'insérer à l'angle du moulin. Le canal de fuite venait rejoindre le trop-plein de l'étang sous le pont qui subsiste encore par miracle, pris en étau par deux autres qui permettent le passage de l'ancienne route, et récemment de la nouvelle. Le canal de fuite bouché et son étang vidé, il est devenu une exploitation agricole. Dans le fond du bief fut bâti un lavoir. Aujourd'hui, même les vaches sont parties et l'étang couvert de noisetiers sert à l'entreprise « Errota » de Ciboure pour confectionner de l'huile.



## **Errota berria** **7**

*Ibarrungo puntan, Donibaneko bide zaharreko gurutzean, bazterrean da ezarria. Badu aspaldi ez duela urik ikusi bere sabelean. Cassiniren kartetan agertzen da, bainan ez Napoleonen kadastran. Haunditua edo errebertua izan da 1848an. Aintzira batekin ibiltzen zen. Eki aldean ezponda bat du mugatzen eta itsas alde paret bat eraikia izan da luze guzian, errotako kantoinatik hasita. Hiru metra inguruko erortzea izan behar zuen jakinta bere bulharra tapatua izanez ez da arkuaren harri bat ere agertzen. Hortik eta soberakinetik erortzen zen urekin biezbat egiten zuten zubi azpian pasatu antzin. Zubi hau beti hor dago bertze bi zubi inguratuz, aspaldiko bidearen azta. Pareta mutur bat urratuz aintzira ustua izan da eta baserri bilakatu da. Errekan latsa-harria eraiki egin zuten lehen itoa zen leku batean. Gaur, behiak ere joanak dira eta bizileku bat da bilakatu. Aintziraren eremuak dira urritzez estaliak, Ziburuko « Errota » olio egileak jabetuz.*



Ancien réservoir d'eau du moulin

## Moulin vieux et moulin de Mme Choin **1** & **2**

On sait peu de choses sur ce moulin détruit en 1793 et aujourd'hui disparu. Cassini le localise dans la forêt d'Amotz à la limite des terres avec Ainhoa, juste après le pont de Zubiberri dit « Ifernuko zubia » en direction de Dantxaria. Le sentier pédestre longeant la Nivelles est appelé « Errota zaharren bidea » (le chemin du vieux moulin) et longe ce qui reste d'un bief en parallèle de la rivière jusqu'au barrage de prise d'eau un peu plus en amont. Celui-ci a été détruit récemment lors de la construction du barrage de « Lurberri » pour des raisons de sécurité. Un autre moulin a été aussi détruit en même temps. Accolé à cette même prise d'eau, il était de construction plus récente car il ne paraît ni sur Cassini ni sur le cadastre napoléonien de 1811. La propriétaire, Mme Choin, âgée alors de 82 ans (2008), avait été relogée ailleurs. Sur le vieux cadastre d'Ainhoa, il apparaît un chemin allant à ce moulin et appelé « Ezpeletako errotako bidea » (le chemin du moulin d'Ezpeleta). Ne dit-on pas que les Ezpeleta étaient barons d'Amotz?



Restes du barrage

### **Errota zaharra **1** & **2****

*Gauz guti dakigu 1793an arrunt urratua izan den errota hortaz. Cassinik kokatu du gaur oihantxo bat den lekuan. Dantxaria alde joanez, « Ifernuko » zubia utzita ezker hartuz, ohartzen ahal da oinez kurrituz « Errota zaharreko » deitua den bidexkan, musuko bat izaten ahal liteken atzak. Eremaiten gaitu Urdazuriren gainean plantatua zen presa eder baten antzinean. Ainhoatik harat heldu zaion bidexka deitua zen « Ezpeletako errotako bidea ». Berriki herriak presa urratu du « Lurberri » paret handia eraikia izan delarik. Harekin ere, errekairen hegian bainan bertzalde, ber presari lotua izan den bigarren errota bat, erriskutxo baizelakotz. Hura Cassini kartan ez da agertzen eta Napoleonon kadaxtran ere ez. Choin, 82 urteko anderea, musikari handi bat izana, horko azken jabea, berize bizilekurat emana zuten 2008an.*

**Erraiten da Ezpeleta launak Amotzeko Baruak zirela...**

0	1	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	36	37	38	39	40	41	42	43	44	45	46	47	48	49	50	51	52	53	54	55	56	57	58	59	60	61	62	63	64	65	66	67	68	69	70	71	72	73	74	75	76	77	78	79	80	81	82	83	84	85	86	87	88	89	90	91	92	93	94	95	96	97	98	99	100	101	102	103	104	105	106	107	108	109	110	111	112
---	---	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----

NUMERATION DES MEUNERS BASQUES

### PRINCIPE DE LA NUMERATION DES MEUNERS BASQUES

Le système de numération des meuniers basques est simple, logique dans son élaboration et sa composition. C'est un système à base dix.

#### Signes utilisés :

Les signes utilisés sont au nombre de quatre. Ce sont essentiellement des barres (appelées aussi jonchets), horizontales, verticales, obliques (inclinaison toujours dans le même sens), et des cercles :

- Pour zéro, ou dizaine, ou centaine...etc, selon sa position.
- | Pour l'unité.
- ↘ Pour les nombres de 5 à 9 inclus, de 15 à 19 inclus, de 25 à 29 inclus, etc...
- Pour les nombres de 40 à 79 ; deux cercles à partir de 80.

Exemple : Numération de 0 à 112 : voir Table ci-contre.

## Un futur pour ce précieux patrimoine?

Les moulins mangés par les grosses minoteries ont depuis longtemps perdu leur intérêt dans le milieu économique. Ce n'est que par l'engagement de certains passionnés que quelques-uns sont encore debout. Mais l'eau prend une importance capitale dans notre devenir et pour la pérenniser, l'Europe a légiféré sur sa continuité écologique. La France l'a interprétée en continuité hydrologique et contraint les moulins à l'arasement de leur seuil. Notre patrimoine est donc aujourd'hui gravement menacé. Et pourtant, à l'heure de l'énergie renouvelable, n'y aurait-il pas moyen de leur donner une nouvelle vie en les convertissant en générateurs électriques « propres » ?

## Azken hitza

*Badu ehun bat urte errotak beren lehentasuna galdu dutela ekonomiko mailan. Pixkanaka, banan banan, ixildu dira. Beharrik izan direla jende batzu leku horiek atxikitzeke. Duela hogoi bat urte horietek batzu bildu dira eta elkarte bat sortu dute. Indar bat eman dute biltzeko lehengo jakintzak eta hortari esker errota batzu berriz piztu dira. Gaur gauzak aldatzen hari dira Europa mailan. Erreak babestu nahian lege berri batzu egin dituzte. Bainan bakotzak onartzen ditu bere maneran eta Frantziak urean diren trabak nahi ditu kendu. Hortakotz, errotak eta beren presak dira gaizki begiratuak. Bainan ur-artze gabe ez da errotarik. Bertzalde, « Energi garbia » egiteko manerak dira mihatuak eta gero ta geihago galdetuak. Errota zahar horiek argi indarra erreski egiten ahal lukete eta behar ba leku berri bat hartu gaurko eta biharko aroan.*


# CULTURE et PATRIMOINE SENPERE

Pour nous écrire : [j.sauvaire@orange.fr](mailto:j.sauvaire@orange.fr)

Pour retrouver les précédents BURUXKAK notre site Internet :

<http://cultureetpatrimoineesenpere.fr/>

Reketenia – Ibarron – 64310 Saint-Pée-sur-Nivelle



Les numéros 1, 2 et 3 de Buruxkak en version papier sont épuisés mais peuvent être lus sur notre site Internet. Les numéros 4, 5 et 6 sont disponibles à la Mairie, à l'Office du Tourisme et chez Botika.



Les Grandes Carrières de Grès de la Rhune sont fières de parrainer ce Buruxkak sur le thème des moulins, patrimoine de notre commune, et surtout, de faire connaître au plus grand nombre le travail de l'association "Culture et Patrimoine Senpere".